

**JOSEF FRANTZISKO
AIZKIBELÉN II. MENDEURRENA**

Azkoitia, 1998-03-27

JOSEF FRANTZISKO AIZKIBELEN II. MENDEURRENA

Azkoitia, 1998-03-27

*Nerea Zubizarreta Artetxe,
herriko alkatea*

Ongi etorririk beroena guztioi!

Poz haundiarekin hartzen zaituztegu etxe eta areto historiko honetan.

Ongi etorri...

Koruko Aizarna anderea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura diputatua.

Jokin Azkue jauna, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko ordezkaria, HABAeko zuzendaria.

Jean Harischelhar jauna, euskaltzainburua eta euskaltzain jaun-andre guztiok.

Juan Ignacio de Uria, Euskal Herriko Adiskideen Elkartekoa/Real Sociedad Bascongada de Amigos del País eta gure herriko idazlea.

Erakundeetatik etorritako ordezkari guztiok.

Eta ongi etorri baita ere, herritar eta euskera eta kulturazale guztiok.

Aizkibel omentzera goaz.

Orain dela 200 urte Azkoitian jaioa, Porru kalean, eta Toledon hila 1.865 urtean.

Azkoitiak ez zuen sekula bere lana ahaztu. Urteetan zehar omendua izan da. 100 urte pasatu dira bere izeneko kale bat daukagula. Liburutegi berriak ere bere izena darama.

Bere garaien euskaldunek maisutzat zeukaten, Iparragirrek bertsoak eskaini zizkion.

Gaur ekitaldi honen bukaeran, Azkoitiko Xabier Munibe Ikastolako haurrek abestuko dizkigute.

Atzoko ekitaldian adierazi zen bezala, Aizkibelen maisutzak oraindik ere jarraitzen du.

Berari buruz egun hitzegingo diguten jakintsuak ditugu gure artean: J. M. Satrustegi, H. Knörr eta Juan Ignacio de Uria jaunak.

Urtean zehar ekintza ugari izango ditugu:

Erakusketak, hitzaldiak, argitalpenak eta, horien artean, eta Azkoitiko Udalak sortutako 800.000 pezetako beka, Azkoitiko euskera sakon ikertzeko. Eta ikerketa hau Azkoitiko idazleen eskutik.

Horrenbestez, Jose Francisco Aizkibel Epelderen bigarren mendeurrena irekitzen dut.

Eskerrik asko.

AIZKIBELÉN II. MENDEURRENEAN

*Azkoitiko Udaletxea,
1998-03-27*

*Koruko Aizarna,
Gipuzkoako Kultura diputatua*

Eskerrik asko alkate anderea eta herritarrok,
Euskaltzainak,
Lagun,
Adiskide guztiok. Agur.

Alkateari eta Kulturako zinegotziei esaten nien, baina Azkoitiak zer nolako sorpresak ematen dizkigun! Beti badago zerbait Azkoitian gertatzen dena, edo baditugula ba historiaurreko aztarnak, edota baditugula ermitak ez dakit non, edo baditugula ere dudarik gabe historiak eman dizkigun sorrerak, idazmenak eta abar, eta hara hor zein pozgarri den diputatu honentzat hemen egotea Aizkibelen urtebetetzea eta jaiotza ospatzen. Zorionak eman nahi dizkiot hemendik Azkoitiko herriari, jakin izan duelako betidanik gordetzen hain berea izan den hizkuntza, hain bereak izan diren kultura eta besteentzako, gipuzkoarrentzat eta Euskadikoentzat askotan eredutzat hartu da. Jarraitu dutela tinko berari eusten eta jarrai dezatela horrela. Zorionak antolakuntza guzti honegatik.

Eskerrik asko.

JOSEF FRANTZISKO AIZKIBEL-en II. MENDEURRENA

*Azkoitiko Udaletxea,
1998-03-27*

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Azkoitiko Alkate anderea,
Agintari jaun-andereak,
Euskaltzainkide eta bertze jaun-andereak,
arratsalde on.

Ez da lehen aldiz biltzen dela Euskaltzaindia hiri eder honetan. Beti hartu du, orain bertan bezala, ongi etorririk amultsuena Udaletxe honetan. Nire eskerrik beroenak doazkitzu Alkate anderea.

Egia erran, Azkoitira etortzen naizelarik, beti daukat gogoan Etxeberri Sarakoaren oroitzapena. Saran sortua, mediku egona Saran, Beran, Hondarribian eta, azkenik, Azkoitian kokatu, Azkoitian hil eta ehortzia. Zer lokarri anaikorra, duela bi mende baino gehiago sortua, XX. mende azken honetan sendo daitkeena bi herrien arteko anaitasunezko hitzarmen batez.

Aizkibel ohoratuko dugu gaur karia horretara mintzatuko direlarik Jose Mari Satrustegi, euskaltzaina; Henrike Knörr, euskaltzaina eta Juan Ignacio Uria Real Sociedad Bascongada de Amigos del País elkartearen izenean. Gauza bat bakarrik nahi nuke azpimarratu: zinez aintzindari gisa jokatu dela Aizkibel, beharrezkotzat jotzen zuelakotz Euskal Akademia bat, beharrezkotzat ere literatura hizkuntza bat, idatzitako hizkuntza, denek uler zezaketen hizkuntza. Bi menderen buruan Aizkibel-en ametsa gauzatu da eta bereziki gure belaunaldia aurrera doa bere lanekin:

— *Orotariko euskal hiztegiaren* hamargarren liburukia agertu da duela hiru hilabete, hamaikagarrena, dudarik gabe, aurtan;

— Gramatika batzordea euskal joskeran osoki murgildua da, bere V.liburukia kaleratuko duelarik datorren udan;

— Euskal Herriko Atlasaren lehenbiziko mapak ikusi ditut berrikitan. Horrek erran nahi du lehenbiziko liburukia aurtan edo datorren urtearen hasieran agertuko dela;

— Izan dadien Onomastika edo Literatura ikerketetan batzorde bakoitzak segitzen du lana ahantzi gabe Euskaltzaindiaren eginbideetan sartzen dela gure idazle zaharren goraiatzea hala nola Aizkibel, gaur, Azkoitiko Udaletxe honetan.

— Aizkibel-en II. mendeurrenean gomitatua izan da Euskaltzaindia. Pozik utziko ditut orain mintzatzera jadanik aipatu ditudan bi euskaltzainak. Haien gain uzten dut Azkoitiari Euskaltzaindiak egiten dion eskaintza bi mintzaldi horiekin.

Agur zuri, Alkate anderea.

Has dadila Aizkibel-en urtea Azkoitian.

Eskerrik asko.

AIZKIBEL: ARGIEI MENDEKO AZKOITIARRA (1798-1865)

Azkoitia, 1998-03-27

Jose Mari Satrustegi

Ez da hau lehen aldia Aizkibel azkoitiar ospetsuari buruz Euskaltzaindian mintzo naizena. Orain dela hogeitun urte, 1968.ean Arantzazun egindako batzar zatatsuaen hamargarren urteburuan alegia, batasunaren bidean emandako urratsen hausnartze sakon bat egin nahi izan zuen Akademia honek, eta Bergarako batzarra antolatu zuen Eleizalderen omenez. Euskaltzaindiaren sorrerako 60. urtemuga ospatu zuen denbora berean (1).

Une hartan, Aizkibelen “Euskera” izeneko idazlana agertu berria zen Tolosako Udalaren artxiboan, non azkoitiarra euskara batuaren alde agertzen baita hemeretzigarren mendearen erdialdean, Arantzazuko erabakien ehun urte aurretik. Erabat isildu gabe zeuden istiluei erantzun nahian aurkeztu nion Euskaltzaindiari aurkipean hori. Hizkuntza landuko zuen Akademia baten behar gorria ere aipu zuen bere garaian Aizkibelet eta bi puntu jakingarri horiei buruz zuzendurik zegoen orduko nere txostena (2). Eskuizkribua plazaratua izan zen, hitzez hitz, euskeraren historiagile eta beste edozein interesarentzat baliagarri izango zelakoan (3).

Aizkibel, euskarak bere garaian zituen arazoaren salatzaile kezkatu eta, denbora berean, Arantzazun 1968an hartutako erabakien aitzindari ernea izan bazen ere, beste ikuspegi batetik azaldu nahi nuke nik orain, hogeitun urteen buruan, zuen herritarraren irudia. Hark noizbait amets zuen Akademia hau, Azkoitiko seme txiki agurgarriaren berrehungarren urtemuga ospatzeko bildu da zuen herrian. Hori dela eta, gizona eta bere ingurua zertxobait gogoratzeko bidetik doa nere orainko txostena. Izan ere, izen biren lotura esanguratsua azpimarratu behar da hemen, ezer baino lehen: Aizkibel eta Azkoitia, alegia; edota hobeki baderitozue, Azkoitiko herria eta bere seme handia elkar-lotzen dituen zilborheste edo zila. Parada ezin hobea da norbaiten jaioteguna gogoratzen dena,

(1) *Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra*. Bergara, irailaren 4tik 7ra. *Euskera*, Bilbo, 1978-2. *Bergarako Biltzar ondoko ERABAKIAK*. *Euskera* aldizkariaren eranskina. 1979.

(2) “Aizkibel euskera batuaren aitzindari”. *Euskaltzaindia*, 1979-II-23. *Euskera*. Bilbo, 1979-1, 153-158. or.

(3) J. SATRUSTEGUI: “Un documento inédito de José Francisco de Aizkibel sobre la lengua vasca”, *ASJU XI*, Sn. Sn. 1977, p. 131.

sorrerako giroa, aurretikako loturak eta gazte denborako lagunak kontutan harturik, iturrietara itzultzen saiatzeko. Eta non hobeki, omenaldia egiten dion bere herrian baino?

Gizona ez da inoiz bere hanka motzez bakarrik mundura etortzen; aitamak izan ohi ditu aurre-urratsen nahi-ta-ezpadako euskarri eta bultzagile. Ama baten bihozkada dago beti arnasa berriaren aurretik. Gizonaren sentimenduen has-tapenean eta kezka askoren lehen sokamuturrean ere sorterrria eta eskolaren era-gina nabarmentzen dira neurri batean.

Frantziako Iraultzak European zehar martxan jarri zuen abiada handiko kul-turaren trena hartu zuten bete-betean Aizkibelen aurreko Azkoitiko Zaldun-txoek, eta etorkizunaz jabeturik ekintza aurrerakoien lekuko argi, ekintza sor-tzaile eta bultzatzaile trebe izan ziren, euskaldun koitaduon berezko lotsa motz eta beldur handiak atzean utzita.

Baserritarren herri-hizkuntzan zera esan nahi du horrek: XVIII. mendeko zaldun trebe haien zaldi biziek inguruko hesi txiki guztien gainera jauziz, muga gabeko zelai irekietara bultzatu nahi zutela gure gizon ikasien jakintza maila. Eta mugarik ezak alor guztiak hartzen ditu: ez fisika, kimika, astrologia edo mekanika zientziak bakarrik; baita ere giza-jakintza, klasikoen lorategia eta gertakari guztien munduko paranifoan ematen den eguneroko bizitza. Uniber-tsala da Argien Mendeko haize berrien ufada astingarriak Azkoitiko Zaldun-txoen bidez zekarren pentsabidearen irekitasuna.

Jose Frantzisko Aizkibel Iraultza ondoreko egosketan dator mundura, bai-na pentsamenduarentzat ez dago egutegiaren hesirik eta aurreko maisuen ja-rraitzaile azaltzen da inolako zalantzarik gabe hemeretzigarren mendeko euskal kulturaren munduan. Zalduntxoen herritarra izateaz aparte, haien gogaide ere bada. Izkribatzaile baten bidez 1856an utzitako mezua “Euskera” deitzen da eta bizi osoan hizkuntzari buruz egindako hausnartze guztien laburpentzat har daiteke. Diaspora hain luze hartatik ikusita, izar argitsuenaren xarma dario, bere esanetan, ama-hizkuntzari: “... una lengua tan antigua, tan filosófica como económica en su construcción, y tan rica en sus elementos, que puede servir de modelo para los que trabajan sobre una lengua universal”.

Heldutasunera iritsi den gizonari eritasun gogorraren ondoreak jalgiazari-tako ikasgaia, egoerak berekin daraman bihozkada samur eta mezu sarkorra-rekin oraturik dago, eta mirezgarri zitzaien ama-hizkuntzaren goratarre zinez-koa eragiten du. Azken finean, euskara zaharra zientzia-mailako jakintza bihurtzeko abiapuntua bezala har daiteke bere gogoeta. Bistan dago ezin dela goizetik gauera azterlan hori egin, baina lehen urratsak ematen saiatu zen be-hintzat. Ortografian adibidez, *k* letra sartu zuen, consonante ondoko *u* baztertu, eta *g* hizkia soinu legunarentzat bakarrik idaztea gomendatzen du. Letra ba-koitzarentzat soinu bakarra alegia. Ez duela ortografia berri bat sortzeko asmoz egiten, dio apalki, “pero quisiera llamar la atención de los que son capaces de examinar con seriedad este punto”.

Baina, beste mezurik ere badago eskuizkribuan. Euskara batuaren behar gorria ez baitzen beretzat mintzabide eta hizkuntza maila soilean gelditzen. Itsas handiko uretan murgilduz nahikaria, Euskal Herri zatitua eta euskaldunak bateratzeko lokarri ezin-bestekoa dela zioen hizkuntzaren batasuna.

Herri-ikuspegi erakargarri hau nondik zetorkion aitortzen du gero, Azkoitiko Zalduntxo haienganako atxikimenduzko hitzekin maisu handia gorai patuz: "... el gran pensamiento de nuestro adorado Patricio el Sr. Conde de Peñaflo-rida, fundador de la Sociedad Bascongada de Amigos del País, que produjo tantos beneficios".

Kea eta sua ezin dira elkarrengandik berezi egosten ari den lapikoaren aurrean, eta *Zalduntxo*en berezko zuzia pizturik mantendu zuen beti azkoitiarrak Toledoko bakardade isladatuan bizi arren. Barnean zeraman taldeko espiritua- ren garra.

Aizkibel ez zen, beraz, erromantiko ameslari hutsa hurrengo gizaldiaren antzera. Burua zihoakion aurretik XVIII. mendeko iraultzaileen bidetik, baina bihotzeko bere sentimenduei uko egin gabe. Argien Mendeko aurrelaria zen, baina euskaldun jatorraren herriminarekin. Zientzia hutsaren helburu unibertsalak ez zion sorterriarenganako atxikimendu leiala inoiz hoztu, epeldu edo baztertu. Euskararen Zalduntxoia izan zen, bigarren txanpan aurrekoen zuzia pizturik mantenduz.

Gaurko ospakizuna, jaun-andereak, ez da soilki zuen herritar ospetsu honi egindako omenaldia. Hemen sortutako jakintsu argien talde osoa datorkigu nahi gabe gogora eta, horrela, kultura gizon haiek babestu zituen Azkoitiko herriari itzultzen zaio eskubide osoz bertan burututako emaitzen ohorea. Aiz- kibel bere merezimendu guztien hostajearekin, adibidez, zuen oihan marduletik ateratako zuhaitz emankorra da Euskal Herriko kulturaren historian, eta Zal- duntxo haien espiritua da, ordainez, Azkoitiren ikur nagusia.

Hala ere, talde distirantaren errainu garbiak ez dio itzalik egiten taldekide bakoitzari, argitu baizik. Aizkibelen kasuan azpimarratzekoa da zenbat kontraesanen sare estuan egin behar izan zuen bere lan erraldoia.

1. Azkoiti kuttunetik urruti, Erroma, Paris eta Madrildik zehar ibili ondoren, Toledon bizi eta atzerriko bakardadean hil zen Euskal Herriaz maite- mindutako amorantea. Izan zuen, noski, itzultzeko aukerarik, Gasteizko Se- minarioa birrantolatzean, euskara zientzia mailan irakasteko katedra eskaini baitzioten arabarrek, baina ez zen itzuli.

2. Giza zientziak landu zituen haurtzarotik. Gazteleraz jabetu aurretik ha- sia zen latin ikasten, berak dioenez. Grekera eta frantsesa erabiltzen ditu nor- malki beste hizkuntza batzuen artean, eta hara non bere ogibide arrunta, ha- rrigarria badirudi ere, San Fernandoko dukeen ondasunak zaintzeko ardura eta nagusien kontularitza izan zen. Biziak lor-kate motzarekin lotu zuen gizon han- dia.

3. Euskarari buruz egin zituen azterketa guztiak, eta ama-hizkuntza delarik bere idazlan guztien helburu eta edukia, gazteleraz idatzi ohi zuen beti. Hiztegiari egiten hasitako hitzaurrea da euskaraz idatzi zuen estreinako lana, eta amaitu gabe gelditu zitzaion azken orduan. Egoera hartan ez zukeen, behar bada, beste irtenbiderik.

Bada Ortiz de Zárate arabarraren lanetan pasarte bat susmagarria. Aizkibelen jakituria eta izen onaz mintzo delarik, halaber bizian jasandako nahigabe, ezbehar eta esker txarrak aipatzen ditu: "Este preclaro bascón ha pasado por todas las amarguras, contrariedades é ingratitudes, que, al comenzar este artículo hemos demostrado ser patrimonio de todas las eminencias". Zer zatekeen idazleak esan nahi zuena, edo zein ote zen Euskal Herritik bazterturik bizi-zearen zergatia?

Ez da erraza benetan, berez zaila den lan handia hain egoera desegokian nola burutu zukeen ulertzea. Guregana iritsitako izkribuen zerrenda ikustea aski da sekulako liburutegia zerabilkiela jakiteko. Hiztegi bien ondarea, *Euskera-Erdera*, eta *Erdera-Euskera*, besteak beste, urteetako lanorduen emaitza da. Eta non zituen iturriak?

Idazlanen zerrendari bagagozkio, berriz, era askotako gaiak aztertzen ditu. Hiztegien multzoan honako titulu hauek azaltzen dira:

1. *Diccionario basco-español.*
2. *Diccionario español-basco.*
3. *Diccionario de toponimia.*
4. *Diccionario de las flexiones verbales.*

Azken honek aditzaren arlora eramaten gaitu nahiz berak hiztegi mailan sailkatu. Aditzaren aipatutako forma guztiak bana-banan eman behar izan baliu, bilduma hori izango zen hiztegi sendoena baino liburuki astunagoa. Kontularitzako eginkizunaren kutsaduraz edo, zenbaketa da bere idazkietan ezau-garri nabarmena. Aditzaren formez honako hau dio, adibidez: "El verbo activo tiene setecientas sesenta y tres mil trescientas cuarenta y cuatro flexiones (763.344) en los cuatro dialectos". Ez bat gehiago eta ez bi gutxiago. Hori.

Aditza eta gramatikaren arloko idazlanak hauek dira:

5. *Gramática general analítica del bascuence.*
6. "Tratado acerca de los dialectos del bascuence".
7. "Radicales bascongados".
8. "Sobre declinación bascongada".
9. "De alfabeto bascongado".

Euskara orokorki gaitzat harturik, testu zaharren inguruan eta toponimiaz egindako idazlanak datoz hurrengo zerrendan:

10. "Tres pliegos sobre toponimia, Canto de Lelo...".

11. "Tratado de etimologías".
12. "Apuntes sobre la lengua bascongada".
13. "De la lengua euskara o de los bascongados".
14. "Unas consideraciones generales sobre Euskara".
15. "Canciones de la época de la guerra de Cantabria con los romanos".
16. "Observaciones a los refranes de Garibay".

Azkenik, itzulpenak ere baditu. Azpimarratzekoa da Liburu Santuena. *Testamentu Berria* euskararen lau euskalkietara itzuli zuen. Hau da bere izenburua:

17. *Versión del Nuevo Testamento a varios idiomas y a los cuatro dialectos vascos* (griego, latín, francés, euskera).

18. *La versión al bascuence del diccionario de Trapani*.

Aurreko euskalarien kritikarik ere bada Aizkibelen lanetan. Ez dago ados Astarloaren etimologiakeriekin. Court de Gebelin ikusten du haren burutazioen atzean, letra bakoitzak jatorriko esanahi propioa baduela esatean. Aita Zabalen *El verbo regular vascongado del dialecto vizcaíno* ez zen halaber bere gogoko lana eta uste du alperrik galtzen ari zirela bakarkako hainbat ahalegin eztabaidarako bidea emango lukeen Akademiaren faltan. Bizkaiera ikusten zuen antzinako sustraiak hobekienik gorde dituen euskalkia, batasunerako gipuzkerak eta Lapurdiko euskalkiak baino fidagarritasun gehiago eskaintzen omen duelako.

Meatze ikerkuntzan eta landare jakintzan oso jaioa izan behar zuen azkoitiarra eta gai horietako liburutegirik hoberena omen zen berea. Eskuarteko izkribu eta lan guztien kopia atera eta Euskal Herrira ekartzeko erabakia hartu zuten noizbait Arabako Batzar Nagusiek. Zoritxarrez gure artean maiz gerta ohi den bezala, ez dakigu zer gertatu zen gero bere liburutegi eta paperekin (4).

Izatez, ondare ederrik eman du Euskal Herriak, utzikeriaren gau ilunean galdu izan ez balitz altxorra.

(4) J.M. SATRUSTEGUI: "¿Cuál fue el paradero de los originales de Aizkibel?", *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos*, 117, 1979, 52.

AIZKIBEL BIBLIOGRAFIAGILE

Azkoitia, 1998-03-27

Henrike Knörr

Bi izan dira Azkoitiak 19. mendean eman zituen bibliografiagile handiak: Jose Francisco Aizkibel eta Jose Ignacio Arana. Badu Aizkibelek, hala ere, ezaugarri bat, jesuitak ez duena: bibliografiagile izateaz gain, liburutegi handi baten jabe zela.

Aizkibelen liburuak, jakina denez, Gipuzkoako Diputazioaren liburutegi-rako lehen oinarria izan ziren. Garbi dago, ordea, liburu eta paperen parte bat baizik ez dugula ezagutzen. Paperei dagokiela, bereziki, hiztegiaren argitaratze-lanean aritu zirenen ezaxolagatik galdu zirela esaten zuen Ixaka Lopez Mendizabalek; haren ustez, ez zituzten erabili, eta gero ez ziren biltzeaz eta gordetzeaz arduratu. Liburuak Juan Jose Munita Gipuzkoako Diputazioaren artxi-bozainak katalogatu zituen. Artetxek eman digu horren berri:

“... consta de 1459 obras en 3477 volúmenes, que se dividen en 23 secciones diferentes que abarcan desde la Agricultura a la Lingüística, pasando por la Literatura, la Botánica, la Historia y la Geografía, las Ciencias Físicas y Exactas, la Medicina, las Bellas Artes, Educación, Derecho, Industria y Comercio, Artes y Oficios” (1).

Sailkatze txiki honek gogorarazten digu Aizkibelek denetariko liburuak erosten zituela. Bere garaiko liburutegi tekniko hoberena zuela esaten zen.

Aizkibeli liburu-biltzaile izateak eman zion, beste deusek baino areago, bere garaian zuen ospea handia. *Euskalari ofiziala* zen, inondik ere, ia *euskalari bakarra*, Hegoaldean, bederen. Ez da harritzekoa Iparragirrek kanta bat eskaini bazion (“Españian da gizon bat / Behar deguna maita...”), Jose Artetxek dioenez duela 70tsu urte Urolako ibarrean zaharrek kantatzen zutena (2).

(1) Artetxe, “Un azcoitano ilustre. Aizquibel”. *Vida vasca* XXXVI, 1959, 81-83.

(2) Artetxe, *o. cit.* Ospe hori zela eta, Gasteizko elizbarrutia lehen urratsak egiten ari zenean, apaizgaitegia euskararen alorrean behar bezala hornitzeko Arabako Diputazioak Aizkibel kontratatu nahi izan zuen, 1867an. Gure agintariek ez jakin Aizkibel bi urte lehenago hil zela Toledon (erakunde akademikorik gabeko Herriaren tristea!). Ikus erabakiaren oihartzuna, Ramon Ortiz de Zarate, “Reapertura del Seminario eclesiástico de Aguirre”. *Escritos*, II, Bilbo 1900, 162-164. Artikulu hori *Irurac-bat* aldizkarian agertu zen lehenbizikoz, 1867an.

Azkotiarraren lanei bagagozkie, nabariak dira hutsak eta akatsak. Zer esanik ez, garaiko giro hura hartu behar dugu kontuan, gure epai zorrotza eman baino lehen. Adibidez, Garibayren atsotitzen edizioa, Historia Akademiarentzat 1854an prestatu zuena, ez da batare ona. Baina orduan nork ezagutzen zuen 16. mendeko euskara? (3). Berdin bere etimologietan, *Europa* < *Euri - opa*, “deseo de lluvia”, edota *España* < “borde, litoral, esquina, labio”.

Aizkibelek bibliografia-lan interesgarria utzi zuen, zenbait euskalarik aipatu dutena, argitaragabea egon arren. Bostehun inguru orrialde ditu, eta *De la bibliografía y literatura bascongada y de sus diferentes dialectos* deritza. Tolosan gordetzen da, Xabier Lopez Mendizabalen etxean. Haren ustez, 1936-1939ko gerra zela eta bertan behera gelditu zen Aizkibelen lan hau eta besteren bat argitaratzeko aitak, Ixaka Lopez Mendizabalek, zuen asmoa.

De la bibliografía y literatura bascongada, nabari denez, zirriborro moduko zerbait da, aro desberdinetan idatzia, erdi bibliografia, erdi egunkari, eskal literaturaren eta euskal ikerkuntzaren gaineko liburu eta eskuizkribuen zerrenda iruzkinduna. Azken aldean antologia luze bat aurkitzen da. Eskuizkribu osoaren itxurak adierazten digu egileak egun batez liburu gisa nahi zuela plazaratu,

Euskal testuen eta euskarari buruzko liburuen bilatze etengabea, Aizkibelek etekin handia atera zien San Fernandoko dukearen idazkari zela Espainian eta atzerrian egin zituen bidaiei eta egonaldiei. Besteak beste, Parisen bizi zenean, haren nagusia enbaxadore baitzen, Aizkibelek Silvain Pouvrearen hiztegi argitaragabea kopiarazi zuen Nazio Liburutegian. Leizarragaz ari delarik, ezagutzen dituen aleen zerrenda egiten du; sei dira. Bat Erroman aurkitu zuen, Barberini liburutegian, Larramendik bere hiztegia dioena lagun zuelarik. Liburuaren hasieraren kopia bat egin ziezaioten eskatu eta lortu zuen, Palman, La Romanako markesaren etxean, gordetzen zen beste ale batetik (4). Leizarragak toki berezia du bibliografia honetan: zabal mintzatzen da hartaz Aizkibel, eta haren itzulpena biziro goraiatzen du: “con mucha exactitud”. Aldiz, beste liburu batzuk ezin izan zituen aurkitu, adibidez, Oihenarten olerki eta

(3) *Refranes vascongados recogidos y ordenados por Estevan de Garibay y Zamalloa. Memorial histórico español* VII, 1954, 625-660. Facsimile argitaraldia, Librería París-Valencia, Valentzia 1995. Salneurria: 250 pezeta (sic).

(4) Ba ote da oraindik ale hori? Ez zen euskal liburu bakarra, gainera: “... con otros libros Bascongados muy raros”, dio. Eta lerro batzuk beherago markesaren adiskidea zen Baltasar Montaner-ek Aizkibelen adiskidea zen Jose Maria de Alos militarri 1838an egindako gutunetik pasarte hau aldatzen du eskuizkribura: “... no quieren entrar en ningún cambio; pues que ya varias veces le han hecho proposiciones etc. etc.”. Eta hau ere irakurtzen dugu antologian, Done Pauloren erromatarrentzako bigarren gutunaren ondoan: “Interesante. Esta copiado en Palma de Mallorca por el Sr.D. Bernardo de Echaluze, Capitan de Artilleria, mi amigo, del ejemplar de Lizarragüe [sic], que existe en la biblioteca del Sr. Marques de la Romana que son dos hojas que le faltan al ejemplar que tiene el Sr. de Gallardo”. Palmako ale horrek ere zenbait orrialde falta zituen eta izenburu hau zeraman: “Testamento nuevo en Vascuence, libro rarísimo”. Eta lehen orrialdean: “Vease el Diccionario Vascongado del P. Larramendi en el prologo 36 y 37”.

atsotitzen lehen argitaraldia; behin eta berriz eskatu eta galdetu arren, Parisko Nazio Liburutegian esaten zioten desagertu zela edota baten batek mailegutan hartu. Baina *Notitia utriusque Vasconiae* irakurri ahal izan zuen han. Harritzekoa da Etxepareren liburua ez aipatzea. Urrutiko berrien ehizan ere ibiltzen zen azkoitiarra: Londresen gordetzen zen Mikoletaren gramatikaren eskuizkribua bazela jakin zuen, baina liburu-ehiztariak huts egin zuen honetan. Ez zuen lortu, ez originalean eta ez kopian.

Helburu horren lagungarri ziren, halaber, bere garaiko euskalari eta euskaltzale gehienekin Aizkibekek izan zituen harreman ugariak. Batzuek liburuak saldu ez, opa zizkieten. Ulibarri arabarrak bi saski bete liburu eman zizkion, azkoitiarra Bilbora joan zen batean. Aizkibekek berak kontatzen du hori aipatzen dugun eskuizkribuan:

“En Bilbao la Vieja encuentre los libros mas raros de Bascuence en casa de Jose Paulo de Ulibarri herrador mariscal y sindico de aquella anteiglesia [...] He respetado su memoria, tienen su firma”.

Eta gero dio 2.000 erreal urrezko eman nahi izan diola, liburuen ordain, eta

“...se ofendio altamente de ver las seis onzas y el ochentín”

“Logrerua ez naiz ni ñoiz, eta emoten dautzat Verbatégija eguiteagatik”.

“A duras penas pude hacerle tomar dos onzas. Solo por el Axular hubiera dado entonces ese dinero; pues por el Isasti pague dos onzas en San Sebastian”.

Adiskideen eta berriemaileen artean aipatu behar dugu orobat Maurice Harriet haltsuarra (1814-1904), Madrilgo San Luis de los Franceses izeneko eliza, eskola eta eritegiko burua. Maurice Harriet, aitona Martinen bidetik (gogora honen *Gramatika escuaraz eta francesez* liburua, 1741ekoa), euskal hiztegi zabalaren egiteari ari zen, argitaragabe gelditu zena (5). Hiztegi hau irakurtzean ohar-tzen gara egilearen Aizkibekekiko adiskidetasunaz. Gainera, hiztegi horri esker euskal literaturaren izkutu bat argitu ahal izan nuen aspaldi, hots, Aizkibekek, Oteizaren goitizenez, itzuli zuela San Lukasen ebanjelioa (1838) George Borrow protestantearentzat. Borrow hori “Jorgito el inglés” izenez ezagunagoa zen Espainian, eta haren *La Biblia en España* Manuel Azañak itzuli zuen gaztelaniara. Ez da harritzekoa Aizkibekek nahi ez bazuen agertu bere izen eta deituz protestanteek eragindako itzulpenaren egile.

Bibliografia esparru horretan, gainera, Aizkibekek bazuen Toledon égarria non ase: Bartolomé José Gallardo (1776-1852), Cadizko gorteetako liburuzain izan zena, liberal mutur-muturrekoa, Menéndez Pelayok bere heterodoxoen baltzuan sartu zuena. Gallardok eman xehetasunak ugari dira orrialde hauetan.

(5) H. Knörr, *Para una edición crítica del diccionario de Maurice Harriet*. Tesi argitaragabea. Gasteiz 1987. Ikus orobat nire “Harrieten hiztegiak”. *ASJU* 20:2, 1986, 413-418.

Etxeberri Ziburukoaren *Manual devoziozkoa*-z ari delarik, honelakoak irakurtzen ditugu:

“Al fin, después de mucho tiempo, y cuando teníamos copiado todo el librito de *Noelac* [sic] que es la obra que tenía el Sr. Gallardo, ha pasado ya a ser de nuestra propiedad...”.

Eta orrialde horretan bertan, baina beste une batean idatzia, hauxe:

“Hoy 3 de octubre de 1851 tenemos el placer de ver en nuestras manos el librito bascongado que nos ha prestado con tanta bondad en cambio de otros manuscritos raros, que igualmente le hemos prestado, tomándonos el trabajo de ir a pie hasta la Alberquilla a pesar de nuestra obesidad, y del mal de gota”.

Bidenabar, Etxeberriren bertsoen neurkera kritikatzeko du, eta dio: “Aliquando dormitat Homerus”. Hala ere, euskal idazle hobereenen artean sartzen du Etxeberri:

“...en nuestra Gramatica citaremos muchas veces a este autor” (6).

Ez zuen, ez, denbora galtzen, liburuak biltzeko ahalegin horretan, eta aukera guztiez baliatzen zen. Maiz aski aurkikundearen poza ageri da eskuizkribuan:

“¿Cuando me podía figurar que un Arambillaga, de que ni siquiera tenía noticia la mas remota, habiendo tratado con tantos filólogos bascongados y extranjeros, se había de encontrar en Ichaso Legorreta?”

Eskuizkribu honetan obrak zaharretarik berrietara daude zerrendatuak, bibliografialari askok zerabilten moduari jarraiki (urte asko geroago Vinsonek gauza bera egin zuen, jakina denez). Azkena Intxauseren *Le verbe basque* da (1858).

De la bibliografía y literatura bascongada eskuizkribu honek badu sarrera luze bat (urte asko lehenago hasia), gure hizkuntzaren jatorriaz, bikaintsunaz eta abarrez, dena oso garai hartakoa, baina erokeria litzateke sarrera hau gutxieste. Izan ere, tartean Humboldt ageri da, bai eta Errro ere, edo Ramón Diosdado jesuita, Erroman bizi zena, *Bibliotheca Scriptorum Societatis Jesu* lan handiaren egilea, Zabala eta haren *Verbo regular...* liburuak, d'Abbadie, Chaho eta beste. Badira beste gauza interesgarri batzuk, hala nola Elsoren dotrina eskuetan izan zuela, “Elso, navarro de vascos... hacia 1525”.

Aizkibelek iritzia zuzena erakusten du maiz aski. Esaterako, Etxabe ongi iruditzen zaio hizkuntzari buruzkoetan, ez historiagile. Nabaria da orobat Oihenart miresten zuela, eta, Humboldt-ek bezala, atsotitzen interes handia azpimarratzen du. Aldiz, Astarloa gogor kritikatzeko du:

(6) Maurice Harrieten iritzikide zen, hortaz, Aizkibel, Etxeberri Ziburukoari buruz. Gogoratu behar da Etxeberri dela Harrietek gehien aipatzen duen autoreak (aipuak maiz aldatzen bazituen arren, gainerako autoreekin egiten zuen bezala).

“Muy desagradable nos es en este momento nuestra tarea, cuando nos vemos obligados a criticar la unica obra publicada por un Bascongado, que a nadie cedia en patriotismo, en laboriosidad, y en investigaciones, que hubieran sido muy utiles, si no hubiera caido en sus manos el Court de Gebelin, que hizo el mismo efecto que (nos pinta Cervantes) los libros de caballeria en el Don Quijote” (7).

Han hemenka, euskaldunen axolagabekeria salatzen du:

“nuestra desidia vergonzosa”

“sin que paguen [los vascos] un gusto y laudable tributo a la República literaria”.

Antologia, esan bezala, luzea da: eskuizkribuaren heren bat hartzen du, gehiena neurtitzak. Besteak beste, hau irakur daiteke: Leizarraga (esandakoaz gainera, Joana erreginari egin gutuna eta euskaldunentzako oharra, dotrinaren parte bat eta hiztegitxoa), Iztuetaren *Kontxesiri*, Altabizkarreko kantuaren hasiera, Iparragirrerren zenbait bertso (tartean Aizkibeli berari eskainiak eta *Gerrikako Arbola*), Meagher, *Noelak* (osoa) eta zuberotarrek Bonaparteri egin ongi-torritzko bertso hauek (1857), izengabekoak, hirugarren ahapaldian eteten direnak:

“Hunki [sic] jin zaradila, Jaun Printze nublia
Hounki jin zaradila, Uskaldun berria;
Egun zuc bisitatzez Ziberou herria
Hanitz duz [sic] onhoratzen hanco populia.

Herraiten [sic] zicuzien maite guntuzula
Zihaurc duz [sic] eracousten jinic gour' artila;
Gu ere houna guira çoure haitzinila [sic]
Goratic erraitera ezker [sic] deizugula.

Frantziaren chokhouan, Ziberon gordia,
Izan hiz orai drano...”.

(7) Antoine Court de Gébelin (1725-1784).

**IPARRAGIRREK F. AIZKIBELI EGINDAKO
BERTSOAK ETA MUSIKA**

Azkoitia, 1998-03-27

Aizkibel-en jaio dataren bigarren mendeurrenean.

Azkoitiko Udaletxean abestua:
Xabier Munibe Ikastolako 'Bertso Eskolako' kideak

GORA EUSKERA

1

Azkoitian da gizon bat
behar deguna maita
Frantzisko Aizkibel jauna
euskaldunen aita;
txit da gizon prestua
eta jakintsua,
errespeta dezagun
bai gure maisua.

2

Hogeita hainbeste urtetan
bizi da Toledon,
Izarraizko semea
ez da beti lo egon;
liburuen gainean
lanean gau ta egun
gure euskera maitea
galdu ez dezagun.

3

Arabe eta hebreoa
bera denak denak
nere adiskideak:
Gora Gora euskera!

bihotzean gurutza,
eskuan bandera,
esan lotsarik gabe
euskaldunak gera.

4

Pakean bizitzeko
gure mendietan
euskera hitzegin behar da
batzarre denetan;
ta euskaldunen izena
geroko ehunkietan
famatua izango da
alde guzietan.

* * *

Arrabitaz: Aintzira Oñederra eta Ane Plazaola.

Bertsolariak: Miren Larrañaga, Ergiña Alberdi, Iosu Usubiaga eta Iñaki Arrieta.